

Goibek

kale

Elgetako aldezkarria aztaila 482k.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

**Drogen
kontrako
sarekada
Elgetan**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorriö (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

ARDI beltza Hasi haritik tiraka.

Planteamentua:

EGINeko Ikerkuntza Talde ohiak egin zuen bezela, ikerkuntza kazetaritzan oinarritutako aldizkari berri bat sortu nahi da udazkenerako. Hilabetekari konprometitua izango da, egia aurretik jarrita, beldurrik gabe haritik tiraka hasiko dena.

Era honetako argitalpenak herritarren dirulaguntza eskatzen du, bere independentzia ziurtatzeko eta banatzaileen monopolioetan ez jausteko. Hori dela eta harpidetza bidez banatuko da soilik. 10.000 harpidetza ziurta behar dira proiektua aurrera ateratzeko.

Edizio bat Euskal Herrian beste edizio bat Paisos Catalans, Galizia eta Estatu espainolerako. 120 orrialdetako hilabetekarian ondoko atal finkoak aztertuko dira: Antimilitarismoa, Kartzela, egurtasun Indarrak, Ekologia, Hezkuntza, Hizkuntza zapalduak, Emakumea, Okupazioa, Ekonomia lan munduan, Baztertze soziala, Narkotrafikoa, Mugimendu antifaxista, Gay eta Lesbiana mugimendua, Konfidentzialak, Ajenda (mobilizazioak eta konbokatoriak). Gaietan gehiago sakontzeko urtean 4 liburu aterako dira.

HARPIDETZA EGITEKO:

- HAIZEA tabernara zuzendu, bertan harpidetza txartela bete eta bertan laga, horrela harpidetza guztiak zenbatzeko eta bidaltzeko errazago da.
- Ordaintzeko aukerak: txartelean ikusiko duzuen moduan bi aukera daude, bata urteko kuota 12.000pta. edo hiruhilerokoa, 3.000pta. Hilero aldizkaria +urtean 4 liburu.
- Lehenengo alea jaso arte ez zaizue kobratuko.

Elgetako ardi beltza

Viva la Pepa

Azkenengo hauteskundeetan PNV-EA alderdiak hirurehun boto pasa eta 4 zinegotzi, eta EHk ia hirurehun boto eta 3 zinegotzi lortu ditu.

EHren planteamendua komisiok proportzio horretan banatzea da, baita alkateordeak eta gainontzekoak ere. Gobernu batzordea ez egotea ere eskatzen du EHk, edo bestelan zabala izatea (edozein elgetar joan ahal izatea bertara, nahi izanez gero, bere eskubide eta interesak defendatzera), eta komisioren funtzionamendua "demokratikoki" errespetatzea.

PNV-EAren planteamendua proportzionalki ez banatzearena da (beraiek, tokatzen zaiena baino gehiago hartzen dute eta EHk tokatzen zaiona baino gutxiago). PNV-EAkoak gobernu batzorde itxia izatearen aldekoak dira eta halaxe erabaki dute (elgetar arruntok ezin dugu joan). Bestalde, komisioren funtzionamendua... irailean jakingo dugu.

Elgetako botante bat

Lanerako prest

Azken aldian sortu diren haize berriek gure herrian itxaropena sortu dute. Haize horiek bultzatuta, Elgetan ere, garai berri bati hasiera ematea komenigarria izango dela uste dugu. Bazterketak eta jarrera prepotenteak alde batera utzi eta denok batera lan egiten hasi behar dugu. Asmo horrekin aurkeztu ginen hauteskundeetara eta jarrera berdina eraman dugu Udaletxe berria osatzerako orduan. Eskatzen genituen puntuak logiko eta demokratikoak dira: plenoak indartu, horrela herriaren presentzia Udaletxean bultzatzeko, eta ez gobernu batzordean erabakitzeko

soilik alkate eta bi zinegotzien ardurapean.

Batzordeen banaketan gauzak argi genituen: batetik, zazpi zinegotzi zazpi batzorde; bestetik, batzordeen autonomia osoa, hau da batzordearen egitasmo eta aurrekontuaren banaketa errespetatzea, gainetik alkateak erabakiak hartu gabe.

EAJkoekin elkarrizketak burutu eta gero garbi ikusten dugu oraindik haize berri hauek ez direla Elgetako Udaletxera iritsi, EAJ-k lau zinegotzi eta bost batzorde hartuko ditu eta EHk hiru zinegotzi izanik bi batzorde. EAJk alkatea eta alkateordea hartuko ditu aipatutako zinegotzietz gain.

EHk, honen guztionen aurrean eskainitakoa onartu du, ez eskaintza demokratikoa delako, bai zik eta haize berri horiek bultzatuta lanerako prest gaudelako.

Elgetako Euskal Herritarrok

Oporretara goiaz!!!!!!!!!!!!

Goibekokaleko langi-
lliok be oporrak hartu
bihar dittugu. Hau dala
eta, hurrengo aldizkari-
xai intxotxen dagonak
euki deilla goguan
urrixan baterarte ez
dala aldizkaririk egon-
go.

Bittartian, ondo ibilli!

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salvador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 6



Bi elgetar Iruñako UEUn

Uztailaren zazpitik hamalaura bitartean elgetar ugari ibiliko zen Iruñako kaleetan.

Baina zer egiten zuten bi elgetarrek Iruñan sanferminak pasatu ondorengo astean?

UEU, ez dakienarentzat, Udako Euskal Unibertsitatea da. Uztailaren bigarren hamabostaldian ireki ohi ditu ateak Iruñako UEUk, hogeita zazpigarren urtez aurten.

Buruhauste franko izan da ekimen hau aurrera ateratzeko, hasierako urteetan batik bat, eta oraindik ere ahalagin handiak egin behar izaten dira eskaintza hau bideratzeko.

Bi astez, jakintza-arlo guztietako ikastaroak antolatzen dira, eta euskal kulturako hainbat gai jorratzen, ikasle-irakasle giro nahas-mahasian. Dendena euskara hutsean, noski.

Euskal Herriko alde guztietako hizkerak, maila eta jardunbide orotariko neska-mutil, andre eta gizon, biltzen dira Iruñan, ikasi, erakutsi edo besterik barik, zerbait aportatu nahi duena izanez gero. Beti ere, lagun-giroan, lasai eta patsadatsu. Urtean zehar ikasitakoak gogoratu beharrik gabe, nahiz eta erabat ahaztu ez, beste ikuspuntu batzuetatik jorratzen dira, gai berriak deskubritzeko aukera ere izaten da; eta urtetako lanaren berri ere plazaratzen da, hala zientzian nola humanidade eta arteetan.

Bi elgetarrek elkarren berri izan barik egin zuten topo bertan. Itxura batean, biak harrirtuta geratu ziren, eta poza ez zen txikiagoa bata bestearen ikusi zuenean, elkar besarkatu zutenean. Ez elkarren babesa-edo behar zutelako, gainera ikastaro banatan hartu zuten parte; helburuak ere ez zituzten justu-justu berdina izango; baina ziur naiz, hango orotzapena eta aste beteko gozamina partekatuko dutela beste inoiz hango kontuak esaten hasitakoan.

Ea datozen urteetan Euskal Unibertsitaterako uzta ugaritzen den eta elgetar bakarra agurtu beharrean, gehiago ere ikusten ditudan!
Agur, Iban!

Beatriz Zabalondo



Osasun zerbitzuak

Gutxi batzuek sortutako gizarte honetan, estatua, gizakiarentzat ego-

kiak diren baliabide ugari sortzen saiatzen da baina, benetan hori al da nahi duena? Askotan estatuak, kanpoko begiei plazerra emateko sortzen ditu museoak, autopistak, metroak...


Errealitatearen aurrean begiak irekitzen baditugu eta benetan geure inguruan dauden atalak aztertzen baditugu gauza asko hobetu daitezkeela konturatu gaitzke.

Izenburuak dioen bezala, benetan garrantzitsua eta beharrezkoeneko atal bat dugu OSASUN ZERBITZUA.

Komunikabideetan gero eta gehiago entzun ohi dugu istripuen ondorioz milaka pertsona hiltzen direla, baina beti ere, komunikabideak zerbitzuak behar bezain azkarrak ez direla izkutatzen saiatzen dira. Azken finean, pertsona baten bizia zerbitzu hauen menpe dago, hauen arabera gure bizitzak aurrera jarraitu dezake edo zoritxarrez ez! Bestetik, gaixotasun ezberdinentzako milaka proiektu egiten dituzte pilula berriak sortzeko etab. Guk hauek eskuratzeko errestasunak jarri beharrean eragozpenak besterik ez dizkigute jartzen. Pilulak gero eta garestiagoak dira eta asko ez dira seguritate sozialean sartzen, NORA GOAZ HORRELA?, BENETAN ESTATUAK GUREGAN PENTSATZEN AL DU?

Horrela jarraituz gero, beharrezkoak ez diren itsurakeriak sortuz eta benetan beharrezkoa duguna eskuragaitz bilakatuz gero, ez dugu gizarte egoki bat lortuko inolaz ere.

Iratxe Uzuriaga



GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.
E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Abuztuaren 5ean eta 6an Salvador Jaiak

Maixa eta Itziarren kontzertua izango da

Abuztuaren 5ean eta 6an Salvador Jaiak ospatuko dira. Aurtengo jaiak 400.000 pta.ko aurrekontua daukate. Abuztuaren 5ean Maixa eta

Itziarren kontzertua izango da, iaz bezala kale atzean jarriko duten taulan. Salvador egunean meza izango da ermitan eguerdiko 12:00etan eta ondoren salda egongo da. Bolatokia ere zabalik egongo da egun guztian. Gauean trikitilariak izango ditugu jaiari amaiera emateko. Haurrentzako jolasak eta dantza suelta ere izango dira.



Salvador jaietan gero eta jende gehiago.

San Bartolomeak Zabaletan

San Bartolome jaiak ospatzeko egitarau zabala prestatu dute Zabaletako auzokoeak:

Abuztuak 24an, martitze-na, eguerdian meza eta luntxa eta gaueko 22:30etan Zabale Anaiak alaitutako erromeria. Gaueko 23:00etan bolo txapelketa egongo da. Sariak ondorengoak dira:

- 1- 15.000pta eta garaikurra.
- 2- 10.000pta eta garaikurra
- 3- 5.000pta
- 4- 3.000pta
- 5- ustegabea.

Eguaztenean, 25ean, meza izango da eguerdian. Jaiari amaiera Imuntzo eta Beloki trikitilariak emango diete, gaueko 22:30etatik aurrera alaituko duten erromeria-ekin. Jai guztietan bolatokia zabalik egongo da.

Elgetako Etxebarri baserria droga operazioen zentrua

Ustez Kokaina eta haxixa banatzen zuten sareko berderatzi lagunetatik 3 behintzat kalean

Duela bi hilabete Ondarroan hasitako zainketen ondorioz, uztaileak 15 eta 20 artean bederatzi lagun atxilotu ditu Ertzantzak. Taldeko lau lagun Elgetan bizi ziren. Elgetako Etxebarri baserrian nahasten zuten Madriletik heltzen zen kokaina. Atxilotetuz gain 600 gramo kokaina, hiru kilo haxix, droga garraiatzeko egokitutako hamar auto, drogarekin nahasteko materiala, 3 milioi pezeta eta sakeleko telefonoak antzeman dituzte. Duela bi hilabete garbita-

sun handiko kokaina saltzen zela ohartu ziren Ondarroan. Honen ondorioz, ikerketa lanetan hasi zen Ertzantza. Lehenengo ikerketen arabera salmentak ez ziren kostaldeko herrira bakarrik mugatzen eta susmagarriak aurkitu ziren eskualdeko herri askotan.

Ikerketek droga Madriletik heltzen zela baieztatu zuten, bertako gazte baten bidez. Taldeko bat Madrilerara joaten zen eta autobusez ekartzen zuten droga Bilboraino. Bertan, taldeko beste

batek taxi batean itxaroten zuten, droga Elgetako pisura edo baserrira eramateko. Droga manipulatutako ondoren taldeak, Ermua, Mutriku, Eibar, Bergara, Elorrio eta Ondarroan banatzen zuten.

Elgetako Etxebarri baserria operazio zentrua

Egoetxeaga auzoko baserria zen operazio zentrua, baserri honetan moztu eta manipulatzeko kokaina. Bertan prestatzen ziren autoak garraio-

rako. Baserria bera ere kamarekin prestatua zegoen, joan-etorriak zaintzeko. Uztaileak 15ean hasitako operazioan, bederatzi lagun atxilotu zituzten. Hasiera batean Elgetako pisu eta baserriaren jabeak ihes egin bazuen ere uztaileak 20an atxilotu zuten. Berderatzi atxilotuetatik hiru kalean daude fiantza ordainduta. Hiru hauetatik bi Elgetako pisuan bizi ziren neskak dira eta baserria beraien izenenean jarri eta berarekin jarraitzeko asmoa dute.

GRUPO

IFA

Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel: 76 80 98.

ALDI



Joseba Muxika: "Elgeta nekazal turismorako oso toki egoki da"

Joseba Muxika Elgetan Turismoa suspertzeko lanetan ari da. Goibekokalek berarekin egon gara dauden proiektu eta ideien berri jakiteko.

-Nolatan lan honetan? Udaletxeak iragarkia atera zuen eta

INEMaren bitartez lanposturako aurkeztu giñe-noi froga batzuk egin zizkiguten, Elgetaren baliabide turistikoak buruz. Lanpostu hau mankomunitatetik sortutakoa da eta beste herrietan ere badago. Mankomunitatean turismo ekintzetarako zentrua dago eta bertatik zuzentzen dira mankomunitateko herrietako turismo proiektu guztiak.

-Zein da zure lana? Proiektuak aurkeztea, aurrekontuak aztertu, turismo gidak sortu eta turismoko informazio puntuak sortu (interneterako web orria, autozerbitzu informazioko pantaila etab.).

-Zein turismo mota nahi da Elgetara erakartzea? Kontuan hartuz gero Elgetan zein baliabide mota dauzkagun, gehien espero den turismo mota turismo kulturala (monumentuak, eliza, ermitak...), turismo naturala (parkeak, inguruko men-

diak, ibilaldiak, nekazal turismoko guneak...) eta inguruko herrietako jendea da.

-Zeintzuk dira Elgetak dituen azpiegiturak?

Azpiegitura mota desberdina daude. Adibidez, Elgeta nekazal turismorako oso toki egokia da, horretarako azpiegiturak nahiko ondo daude. Garraio azpiegiturak berriz nahiko gaizki daude, bai

hemen eta bai eskualde guztian. Alde horretatik gauza asko egongo lirateke egiteko. Azpiegitura komertzialak ere hobetu daitezke, komertzio sare bat sortuz eskualde mailan.

-Zeintzuk dira Elgetak dituen erakargarritasunak? Elgetak baditu errekustso naturalak (Asentzioko parkea, mendiak etab.) eta baita errekustso artistikoak ere (herria bera, eliza, ermitak, baserriak, errotak...).

-Zeintzuk dira Elgetan turismoa bultzatzeko arazoak? Arazo garrantzitsuena dirua da, baina



Euskal Herriko lehen mendi museo-a zabaldu nahi da Elgetan.

kontuan eduki behar da ez dela Elgetatik ateratako gauza, baizik eta eskualde guztitik bultzatzen dena, beraz diru aldetik arazo gutxiago izatea espero da.

-Uste duzue herria turismoa bultzatzearen aldekoa dela? Badaude herria dagoen bezala mantentzearen aldekoak, baina askotan turismoaren ideia mediterraneo kostaldeko turismoarekin lotzen da. Hemen espero den turismoa ez da horrelakoa. Kontutan hartu behar da turismoa aberastasuna dela, dirua dela eta lanpostu berriak sortzen dituela.

-Zeintzuk izango dira lehendabizi bultzatuko diren proiektuak? Lehenengo promozio materialak sortzeko asmoa dago, interneterako web orria, turismo gidak... gero erroten inguruko proiektua... Momentu honetan argazki artxiboa antolatzen ari gara.

-Proiektu berrien inguruan zelan ikusten duzue mendi museoaren proiektua? Oso garrantzitsua iruditzen zait mendi museoaren sortzea. Inguruko herri guztietan badago museoaren bat eta Elgeta mendian dagoela eta mendi federazioa hemen sortu dela kontutan izanik, faktore asko alde ditugu museo aurrera eramateko. Kontutan hartu behar da gainera museo hau Euskal Herriko lehen mendi museoaren izan daitekeela.

-Elgetan turismoa bultzatzeko zer ekarri diezaioke herriari? Herri denei ekartzen diena: etorriko den jendeak herriko denda eta tabernetan dirua utziko du. Honetaz gain herria promozionatzea benetan garrantzitsua da, baina hau gertatzeko kanpotarrek herria ezagutu behar dute.

IÑAKI JATETXEA

Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA Eguneko menua 850 pzta.
Karta.

Udaletxeko batzordeak banatuta

Ekainak 13ko hauteskundeetako emaitzak aztertu ondoren, Udaletxeko batzordeak banatzeko negoziaketatan aritu dira EAJ/EA eta EHko hautagaiak.

E A J / E A R e n gidaritzapean bost batzorde gerauko dira: osasun eta ongizate batzordea (Maria Jesus Lete), irakaskuntza eta turismo batzordea (Izaskun Larrea), kirola (Iñaki

Ugarteburu), hirigintza, obra eta ingurugiro batzordea (Patxi Basauri) eta hazienda batzordea (Patxi Basauri). EHren presidentziapen kultura, gazteria eta euskara batzordea (Bittor Gallastegi) eta baserritarren batzordea (Xabier Basauri) geratuko da.

B a t z o r d e e n banaketa negoziatzeko bi bilera egin dituzte, alkatearen esanetan "ez

da ez EHkoen proposamena ez gurea aurrera eramanez, erdibidea bilatzen saiatu gara". EHkoek ordea, EAJ/EA alderdiaren negoziatzeko jarrera "itxia" izan dela diote, "bi bileratan ez dute beren proposamena aldatu, bileratik kanpo egin ziguten azken proposamena". Batzordeen banaketa dela eta "EHko boto aldea handia ez dela kontuan hartuz,

zinegotziak bezala banatu behar zela uste dugu 4 eta 3". Alkatearen esanetan, "gu 5 batzorderekin geratzearren arrazoia guztiz politikoa da".

Bi alderdiek batzordeetan parte hartzerari animatu nahi dituzte herritarrek. Gobernu batzordeko bileratan erabakiak hartzen Patxi Basauri, Iñaki Ugarteburu eta Olaia Jimenez arituko dira.



Uztaileko goizetan giro aparta udalekutan

Lau eta hamaika urte bitarteko haurrek uztaileak 23an amaiera eman zioten aurtengo udalekuei.

Uztailearen 6a eta 23a bitartean, lau eta hamaika urte bitarteko berrogei haurrek jolasean, marrazten, kirola eta irteerak eginez pasatu dituzte goizak. Aurten bi irteera egin dituzte: bata, Debako hondartzara; bestea, Apatako igerilekura. Asentziora ere izan dira eguraldi ona egin duenean. Mendibuelta eginez, Par-taitti auzoan dauden ostrukak ikustera ere joan dira.

Aurten hiru begiralek eta Joserrak jardun dute haurrek ondo pasa zezaten saiatzen.

Loteria tokatu da Elgetara

Uztailearen 16an loteria tokatu zen Elgetara eta suertatuak hiru izan ziren. Fernando Oiangureni 6.000.000 pta tokatu zitzaizkion, Patxi Basauriri beste 6.000.000 eta Paco Llamasi 3.000.000. Fernando Oiangureni txirindulari elkarteko uzdaiazpikoak ere tokatu zitzaizkion eta baita 50.000pta uztailearen 23ko loterian.



Zortedunak pozik zenbakia irtendako gauean bertan. Txanpanik ez zen falta izan aberats berrientzako.

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85
Faxa: 789043



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

Angiozar Bailarako Batzordea eta Abiadura Haundiko Trenak kalteturikoen ordezkari-tza Deba Garaiko Mankomunitateko ordezkari-ekin bildu ziren

Pasa den uztailaren 21ean bildu ziren Angiozartik joandako ordezkari-tza eta Deba Garaiko Mankomunitateko Hirigintza batzordea. Angiozartik joan zen ordezkari-tza Bergarako alkatearekin batera joan zen, Mankomunitateak azken aldi honetan Abiadura Haundiko Trena (AHT) dela eta Angiozar bailaratik egingo lukeen bideari buruz eta bertan apeadero bat ezartzeko azaldu duen jarrerak argitzeko asmoz.

Esan bezala, iaz, Deba Garaiko Mankomunitateak bat egin zuen Angiozar Bailarako Batzarrak eta Bergarako Udalak aurkeztu zuten Epeleko alternatibarekin eta ondorioz, alternatiba hori bultzatzeko LKS injinaritza enpresari estudio bat eskatu. LKS enpresaren proiektuak Angiozartik proposatzen zena (Epele bailaran interkanbiadorea ezartzea) egin zitekeela baieztatu zuen, baina abiadura haundiko trenarentzako apeaderoa egiteko lekurik ez zegoela ere azaltzen zuten.

Bestalde, bai iaz eta baita aurten, berriz ere Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan sailak alegazioak aurkezteko epea zabaldu du, eta bi alditan Angiozar bailarako Batzarrak hasieratik mantentzen duen proposamena aurkeztu du, non kalterik gutxien sortzeko kriterioa oinarritzat hartzen den, Epelen kokatzea eskatzen zen aipartutako interkanbiadore edo

trenbideen lotura.

Gauzak horrela, Deba Garaiko Mankomunitateak apeaderoa ezin zitekeela egin aitzakitzat hartuta berriz Angiozar bailaratik pasatzeko oneritzia azaldu zuen maiatzean egindako bilera baten, baina ez zuten hartu erabakia, Bergarako jaiak izanda Bergarako udaleko ordezkari-ekin ez baitzuten bertara joaterik izan.

Bitartean, Angiozarren hainbat bilera egin dira jarraitu behar den bidea zehazteko. Bilera hauen ondorioetako bat da orain hasi eta irailaren bukaerararte egingo den firma bilketa. Era berean Hiruauzo deitutako errotari buruzko alegazioa ere aurkeztuko da eta, azkenik, Mankomunitatearekin eduki zen bilera edukitzea eskatu zen, gure eritzia ere bertan entzuna izan zedin.

Bileratik baikor irten zuten Angiozartik bertara joan zirenak, izan ere eztabaida orduan ez baitzieten pixuzko arrazoirik eman Mankomunitateko ordezkari-ekin apeaderoaren alde, eta beraz, Epeleko alternatiba indartua gelditu zen.

Dena den irailean bilduko den Gobernu batzordeak hartu beharko du azkenengo erabakia, bai alde bateko zein besteko arrazoiak kontutan hartuz.

Frontoiko lanak atzeratuta

Frontoiko lanok atzeratuta doaz azken asteetan adjudikazioa bere gain hartu zuen enpresak langile gutxiegi darabilkielako lanok aurrikusitako epeetan bukatzeko. Esan bezala, "Construcciones Berri SA" izan zen konkurtsoa irabazi zuen enpresa, baina honek "Etxaide SL" enpresaren esku utzi zituen lanok, beronek egin zitzen. Horrela ez bata ez besteak ez dute bete hartutako konpromezua eta, ondorioz, Bergarako Udalak parte hartu behar izan du txosten bat idatziz eta enpresa hauekin lanak behar den epetan bukatzeko akordio batera helduz.

Ondorioz "Etxaide SL" enpresarekin izanpetuta zegoen akordioa bertan behera utzi eta Beheko Kalea egiten ari den OZIO enpresari emango zaio lanok egiteko kontratua.

Tabernen oporrak

- Ortzi, abuztuaren 4tik 24ra itxita.
- Beheko Taberna, abuztuaren 9tik 31ra itxita.
- Taberna Zaharra hilabete osoan zabalik egongo da.

Liburutegia

Bestalde, Angiozar Bailarako Liburutegia abuztu osoan egongo da itxita, irailak batean, martitzena, zabalduko delarik berri.

Estetika eta Masai



MAITE CEBRIAN

Andrea Mari Plaza, 1
Tel: 943 76 82 72 Elgeta

Komentu Kalea, 12 - 1
Tel: 94 681 63 75 Durango



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Uste dozu kapaz izango ziñala Elgetatik Gorbeara oiñez fateko?




Mariage Larrañaga
(27 urte) Bihargiña

Ez dot uste 11 orduko ibillaldi bat egitteko kapazidadeik dakatenik. Neretzako holako ibillaldi bat egitteko preparauta egon bihar zara.


Nik egin biharreko ibillaldixa hori baiño bastante motzaua izan biharko zan. Hemendik Ermura presatik bueltan neretzako nahikua izango zan, gehixau ezingo neuke.

Asier Untzetabarrenetxea
(13 urte) Jkaskia



Mihari Larrañaga
(40 urte) Etxeakoandriña

Uste dot hori gehixegi izango zala, baiña ez urtiegaittik ezta gogo faltiagattik, fisikoki preparauta egon bihar dalako baiño. Piskatxo bat laburtxuaua egingo neuke.




Aitzol Jimenez
(19 urte) Jkaskia

Nik ez dot uste holako ibillaldixa egitteko kapaz naizenik. Lagunekin eta katxondeo pixkatekin Besaidera fango nitza-ke Elgeta bertatik, baiña gehixau ez dot uste.

Ez dot ikusten nere burua holako ibillaldi bat egitten. Gehixegi dala uste dot. Nik egin biharrekua pare bat edo hiru bat ordukua izan biharko litzake, bestela bidian geldituko nintzake.

Laura Martin
(19 urte) Jkaskia



Oingo edadiakin ez dot uste ahalko nebanik, baiña gazte denboretan horren baiño haundixauak egindakua naiz. Batzutan, soldauzkan da, derrigorrezko ibillaldixak izaten ziran, baiña horrek be egin bihar.

Antonio Jurrigaztelu
(69 urte) Jubilaua



Kartetan jokatzeko giro egokia

W.C.

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari

denda

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

ARIES: Saturno hire zeñuan sartu dok/don eta horrek arazuak konpontzeko aukeria emongo dua/dona. Ez laga galtzen!

TAURUS: Mendira fatiak on egingo dua/dona, aspaldiko partez lasaittasunakin gozatzeko aukeria edukiko dok/don.

GEMINI: Etxekuekin dakazaken/dakazanan arazuak konpontzeko tenplau egin bihako haiz, merezi jok/jon ondo konpontzia.

CANCER: Ez hadi arduratu parejia-kin arazuak badakazak/badakazan. Horrek udabarriko komerixak dittuk/dittun.

LEO: Datorren aste azkenian sekulako personajia ezagutzeko hago. Ez galdu aukeria eta aprobetxatik/aprobetxain denporia.

VIRGO: Lagunek ez habe ulertzen, baiña hori danoi pozik hagolako dok/don. Hik, momentu onak dakazak/dakazan parian eta eutsi horri.

LIBRA: Noiztik hago pelukeruanga fatega? Ordua dok horri uliorri itxuria emoteko eta ia holan arpegixa gehittuau ikusten jatan/jatanan.

SCORPIUS: Itxura aldaketa batek ez dua/dona bape kalteik egiño ta ikusiko dok/don zelako ondo sentiduko haixen.

SAGITARIUS: Fan hadi Salbador ermittara han ikusiko dittuk/dittun hire aspaldiko lagunak.

CAPRICORNIUS: Dirua aurreratzen fan bihako haiz laster abuztua eta jai-xak eta...beste mordua jatozak/jatozan.

AQUARIUS: Noiztik kirola egitteka? Ordua dok/don zapatillak jantzi eta mobitzen hasteko.

PISCIS: piskat gehixau jatiak ez dua/dona bape kalteik egingo. Hire gorputzan itxuria ez dok/don inportantiena.

Nestor Maidaga Erizaiña (39 urte)

- Zenbat denbora Elgetan lanian? Gustor? 8 urte egiñ dittut ekaiñian. Oso gustora.

- Hemen egon aurretik, nun egon ziñan? Baillara guztian, Arrasaten, Antzuolan, Bergaran...

- Beste lan bat aukeratzeko-tan, zeñ? Musikakin hartu-emanan dakan zer edo zer.

- Erizaiña izatian gau-zaik onena? Eta txarrena? Jentiakin hartu-emanan euki-tzia. Beti dana ondo ez dala irtetzen.

- Sasoian egoteko zer egin bihar da? Ez abusau.

- Zeintzuk ardura-tzen dira gehixau osasunana, nagusixak ala gaztiak? Nagusixak.

- Definitu, Elgetarrak. Jente oso atsegiña.

- Oporretan zer egitteko asmua dakazu? Grezia ingurutik nabegatzeko asmua dakat.

- Zer ziñuke nahixau musikatik ala medi-kuntzatik bizitzia?

Nik musikia jobbi moduan hartzen dot, eta uste dot lan moduan ez neukela hartu-ko, bestela dana diruan arabera faten da

eta.

- Zer da bapatian ez ziñun egingo gauza bat? Ezer.

- San Juanak ala Maritxu Kafoi nahixau? San Juanetako besperia.

- Zerek jartzen zaittu sutan? Beti pertsoniak ahal dabena baiño gehixau nahi iza-tiak.

- Elgetak dau-kan birtute bat? Eta defektu bat?

Pertsona gutxi bizi-tzia birtute bat da, baiña baita defektu bat be.

- Bete ez dozun amets bat?

Bapez.

- Egin dozu ero-kerixak maita-sunagaittik? Bai, asko.

- Zein izan da zure bizitzako egunik garrantzi-tsuena? Neskiakin bizitzera fan nin-tzan eguna.

- Ze animalia erosiko ziñuke bat eroste-kotan? Txakurra.

- Elgetara bizitzera etortzeko asmoik?

Ez.



Horroroskopua

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozok
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Goibekokale 48.zk

TTipi-ttapa Elgetatik Gorbeara

Elgetatik Gorbearainoko mendikadak ez dira oraingo gauza. Duela hogeitau urte ere egiten zituzten horrelakoak. Jose Luis Gorosabelek "Arrota", hainbat alditan egin du ibilaldi hau eta "gu baino lehenago beste batzuk ere egin izan dute" diozku. Ez apostu ez eta beste arrazoi berezirik dela medio, egun pasa egiteko helburuarekin soilik. Ez da erokeria bat, askok horrela pentsatu arren. Fisikoki gutxieneko prestakuntza izatea nahikoa da.

"Ekainean Urkiolara irteera bat egin genuen hogeitahamar bat lagunek. Orduan pentsatu genuen hilabete bat beranduago Gorbeara joatea eta entzuna geneukanez lehen ere zenbait herritarrek Elgetatik Gorbearainoko bidaia egiten zutela, guk ere ibilaldi bera egitea erabaki genuen". Sebastian Arantzabalen hitzak dira eta argi asko adierazten dute nola pentsatu zuten mendikada hau egitea.



Talde honek duela hogeitau urte egin zuten lehenengo irteera.

Iraitzen balentria

Zazpi lagun izan ziren, Ekainaren 11n, goizeko laurak aldera Elgetatik Gorbearako bidea hartu zutenak, hala nola, Iñigo, Igor eta Iker Irazabal, Sebas, Alex, Etor eta Ramon Loidi "Andi". Beste bost lagunek Kanpazarren ekin zioten bidaiari. Bost horietako bat Iraitz Lazkano gaztea bere ama

Josune alboan zuela. Beste hirurak Aitor eta Juan Jesus bergararrak eta Jon-Bego Izagirre zenaren senarra- izan ziren. Iraitz arazorik gabe iritsi zen Gorbeara, horren seinale arratsalde partera antolatu zituzten jokoetan partehartu zuela da. "Hasiera batean kezkatu agertu ginen. Ez genuen ezezko-rik ematea nahi eta berak

zuen ilusioa eta ama ondoan izango zuela kontuan hartuta ez genuen arazorik jarri. Nahiz eta beranduago heldu menditontorrera oso ondo erantzun zuten Iraitzek. Gainera arratsaldeko jokuetan ere partehartu zuten".

Ia hamar ordu oinez ibili ostean azkenean gaina egitea lortu

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAKI ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA
A
S
T
San Roke 6
tel: 768168.

zuten eta bazkaltzera abiatu ziren Pagomakurrera. Han ezusteko txiki bat izan zuten, "Pagomakurrera iritsi ginenean haraino joandako elgetarrek arkua egin ziguten. Guretzako sorpresa txiki bat izan zen. Arratsaldean, 44 lagunek giro politoan bazkaldu ondoren, jolasak antolatu ziren bertara joandako umeentzako. Gero denok etxera" adierazi zigun Sebastianek.

Izandako esperimentzia onaren ondorioz, beste irteera bat ere antolatzen hasi dira dagoeneko. Oraingo honetan Erniorako bidea hartuko dute Sebastianek diozkan

bezala: "Iraila partean Erniora joateko asmoa daukagu. Ibilbidea moztzagoa da, baina zailtasun handiagokoa hau ere. Irailean ez bada urrian joango gara".

Duela hogeit urte bezala

Alberto eta Esteban Sarasketak, Jose Luis Gorosabelek "Arrota", Jose Mari Alberdik, Jorge Iturrikastillok eta inoiz Begoña Izagirrek osatutako lagun taldeak ere antzerako bidaia egiten zuen duela ia mende laurden. Hauek oso ongi prestatuta zuten bidaia, baita mendikada egiteko eguna ere. Jose Luis Gorosabelen hitzak irakurtze-

rik besterik ez daude, "goizeko ordobiak edo hirurak aldera abiatzen ginen. Seiak edo sei t'erdia aldera Otxandixora heltzeko. Santamañak zirenez Otxandixoa jaixetan aurkitzen zen. Zezenak ikusten genituen eta armosau ostean Gorbearako bidea hartzen genuen. Tontorrera heldutakoan etxetik eramandakoa jan eta Barazarrena jeisten ginen. Barazarren kotxea zain izaten genuen". Hauek ere ez zuten arrazoi berezirik mendikada hau egiteko, ez zegoen ez aposturik ez antzerako arrazoirik tartean. Behin joan eta urtero egitea erabaki zuten, "duela hogeit bat urte egin

genuen lehenengo irteera. Orduetik, beste lau edo bost jarraian egin genituen baina pixkanaka, arrazoi ezberdinak direla medio, utzi egin genion joateari. Dena den, udazken partera, berriz joateko asmoa daukagu" adierazi digu Jose Luisek.

Batzuk erokeria bat dela pentsatuko dute, Jose Luis ordean ez da iritzi berdinekoa, "ez, ezta gutxiago ere. Ibiltzen ohi-tua bazaude ez da gogorra. Guk ez genuen "agujetarik" izaten. Garai hartan asko ibiltzen ginen. Maratoiak egiten genituen eta beraz, oso ongi prestatuak geunden. Piskat ibiliz gero ez da batera gogorra egiten". Jose Luisek dio ez zitzaizela bitxikeriarik gertatu, baina inoiz galdu ere egin ziren beraien arteko haserrealdiak sortaraziz: "Mendikada haietan ez zitzaigun ezer berezirik gertatu. Gehienez ere behin edo birritan galdu egin ginela. Ilunetan abiatzen ginen eta Besaiden aurkitzen genuen lainoa zela medio inoiz galdu eta okerreko bidea hartu genuen. Halako kasuetan atzera itzuli eta beharrezko bidea hartzea besterik ez genuen".

Datorren bidaiak Ernioiko gaina izango du helburu. Orduan ere izango da zer kontatu.



Everestera igo balute moduan egin zioten harrera ibilaldia egin zutenei.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Zer egin dezaket tratu txarren eta eraso sexualen aurrean?

ZER DIRA?

Etxeko tratu txarrak

Tratu txartzat, etxean gertatzen diren eraso fisikoak, sikikoak, sexualak edo beste edozein motatakoak jotzen dira. Kolpeak, ubeldurak, irainak, eta beste era askotakoak izan daitezke.

Etxeko tratu txar guztiak ez dira salatzen eta isilpean gordetzen dira beldurrak eraginda: mendekuari zaion beldurra, zer esango ote dutenaren aurrean lotsa, pertsonaren esku-bideak zeintzuk diren ez jakitea, seme-alaben etorkizuna, erasotzailearenganako menpekotasun ekonomiko eta afektiboa...

Eraso mota hau isilpean gordetzeak etxeko bortizkeria egoera luzatu eta adin txikikoek ere jasan dezaten lagundu baino ez du egiten. Beraz, etxeko giroa beldurrak eta larritasunak baldintzatzen dute.

ZER EGIN?

1. Lesio fisikoak badituzu edo ikusten ez diren arren, badituzula uste baduzu, jo ezazu Osasun Zentru batera. Eska ezazu egindako azterketaren ziurtagiria, aurrerago epaiketaren kasuan oso garrantzitsua izango da.

2. Lesio fisikorik ez baduzu edo desagertu egin badira, joan zaitetz Udalaren Gizarte Zerbitzura. Han nola jokatu behar duzun eta zure eskubide eta dituzun eskaitzen berri emango dizute:

- Doako asistentzia juridikoa eta psikologikoa.
- Harrera-etxeak, zure etxebizitzatik alde egitea nahi ezker.
- Laguntza ekonomikoak (legean bilduriko laguntzak).
- Doako justizia, prozesu judizial bati aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez izanez gero.

3. Gertatu zaizun guztia zure inguruko pertsonaren bati esan. Bere lekukotza oso garrantzitsua izan liteke aurrerago epaiketarik izango balitz, froga moduan erabili ahal izango baita.

4. Edozein kasutan, lesio fisikorik egon ala ez egon, uneoro jo dezakezu Ertzaintzara, Udaltzaingora eta Goardiako Epaitegira, jasandako tratu txarrak salatzen. Eman ahalik eta datu gehien, xehetasun txikienak eta baita adierazi aurretik jasan izan badituzu.

5. Tratu txarrak eragiten dituztenendako ere badago tratamendu psikologikoa, errehabilita daitezen eta etorkizunean horrelako ekintzarik berriro egin ez dezaten.



ZER DIRA?

Eraso sexualak

Legez, beste pertsona baten askatasun sexualaren aurka bortizkeriaz edo beldurraren eraginez egindako edozein ekintza jotzen da eraso sexualtzat. Bortizkeriaz jokatzeko ez bada edo beldurra eragiten ez bada, sexu-abusutzat hartzen dira. Erasoa eta abusu sexualak, emakumeen aurka egiten diren delituen erdia dira eta horietatik gehienak ez dira salatuak izaten.

Ekintza hauek ezkutatzeko arrazoiatariko bat, jasandako erasoaren ardura emakumeak berak izatearen uste oker zabaldua izaten da.

Emakumeen eraso sexuarek gertatu eta epe luzera eragina duten ondorioak sortzen dituzte: larritasuna, beldurra, depresioa... Biktimen bizitza-kalitatean sekulako eragina izaten dute eta laguntza berezitua behar izaten da arazo horiei aurre egin eta konpondu ahal izateko.

ZER EGIN?

1. Erasoa sexualik jasaten baduzu ez ezazu zeure burua garbitu eta ez ezazu arropa aldatu, aurrerago epaiketarik izango balitz, froga garrantzitsuak deusezta ditzakezu eta.

2. Jo ezazu hurbilen duzun Eritetxera. Euskal Erakundeek kasu hauei aurre egiteko Koordinazio -Protokolo bat sinatu zuten eta Eritetxeak berak emango dio abisua Epaitegiari.

3. Edozein gorabehera dela eta, lehendabizi Ertzaintzara edo Udaltzaingora jotzea erabakitzen baduzu, berauek lagunduko dizute Eritetxera eta Epaitegietara abisu emateaz ere arduratuko dira.

4. Edozein modutan, lehen adierazitako baliabide sozialak eta juridikoak zure esku dituzu.

Kontutan izan beharreko telefonoak:
GIPUZKOA: 900-434343 Gizartegintza.
112 SOS deiak.

Luke Weir australiarrarentzat XV. Elgetako mendi kriteriuma

Askasibarrek 30. amaitu zuen erorketa asko izan zituen lasterketan


Luke Weir Australiarra (Saunier Duval) izan genuen pasa den igandean Elgetako XV. Mendi kriteriumeko 122 kmak burutzen lehena. Maiatzean Euskal Herriko errepideetara iritsi berria den honek, 3 ordu 9 minutu eta 36 segundu behar izan zituen helmugara iristeko. Egin zuen batzbestekoa 38.6 km/h-koa izan zen, lasterketaren ordutegia zehatz-mehatz errespetatuz. Oso batzbesteko ona izanda lau portu igo behar izan zituztela kontuan hartuta.

Luke Weir-ek kilometro erdiren faltan jo zuen eraso eta CAI taldeko bi txirrindulari atzean utzi zituen J.M. Vázquez eta Sergio Pérez, 44

eta 53 segundutara hain zuzen ere. Gainantzeko partehartzaileak, banan-banan iritsi ziren helmugara.

Lasterketa 32k amaitu

Proba berez gogorra da eta gainera egun guztian zehar izan genuen sirimiri. Lasterketa hasi zuten 120 txirrindularitik, 32-k amaitzea ekarri zuen eguraldiak. Beraz, proportzioan, lau partehartzailetatik batek amaitu zuen lasterketa. Erorketa asko izan ziren euriaren erruz, batez ere aldapa jeitsieratan. Lan ugari izan zuten antolakuntzako hiru medikuek, guztira 25 txirrindularik hartu baitzuten min. Kaltetuena Angel Arrieta izan zen, gauregun Banesto taldean



Oskar irrifartsu Elgetako azken maldak igotzen.

dagoen Jose Luis Arrieta-aren anaia. Femur haustura bat izan zitekenarekin eraman zuten Nafarroako Ospitalera. Azken berrien arabera jadanik etxean da.

E.T.E-ak urtero egiten duen zozketan zen-

bakiak ondokoak izan ziren: Bizikleta 4047, urdaiazpikoena 3036. Bi sariak jadanik badituzte jabeak. Bizikleta Juan Carlos Errastiri tokatu zaio eta bi urdaiazpikoak Fernando Ojangurenari.

Luke Weir Saunier Duval-eko txirrindularia

- Zer moduzko lasterketa izan da?
Laisterketa oso gogorra izan da. Azken portuan, kilometro baten faltan, CAI taldeko txirrindulari bat eta biok gelditu gara aurrean. Kilometro erdiren faltan eraso jo dut eta bakarrik heldu naiz.

- Noiztik Euskal Herriko lasterketan parte hartzen?

Iaz, maiatzean etorri nintzen Euskal Herrira Banaka taldera, baina ez nuen lasterketa askotan parte hartu barizela hartu nuela eta. Aurten, maiatzean, berriro etorri naiz, baina Saunier Duval taldera. Iaz baino hobeto aritzea espero dut.

- Elgetako lasterketa izan da irabazi duzun lehena?

Ez, aurreko igandean, uztailearen 11an irabazi nuen Fuenmayorren lehendabiziko lasterketa. Orduan beste bi txirrindulariei hartu nien aurrea.

- Ze ibilbidetan moldatzen zara hobeto?

Ongien mendi askoko egun bakarreko probetan moldatzen naiz. Igoera eta jeitsiera askoko lasterketan.

- Profesioaletara igotzeko asmorik bai?

Bai. Horretarako etorri naiz hona.



Uberatarren finalean gaztea nagusi

Xabierrek eta Jaiok 16an utzi zituzten Iñurrategi eta Aitor

Aramaixoko frontoiak Aitor eta Xabier Uberaren arteko lehen finalaz gozatzeko aukera eman zigun. Zaharrenak, Aitorrek, Unai Iñurrategi izan zuen bikote moduan eta Xabierrek berriz, Jaio apatarra.

Printzipioz zaharrak Iñurrategi eta Aitor, ziren faborito. Eskoriatzakoak bere maila emanez gero, duen golpea kontutan izanda, Aitorrek aukera asko izango zituen tantoa amaitzeko eta horixe egon zitekeen partidako gakoetako bat.

Gazteek berriz, beste era batetako jokoa nahi zuten Jaioren segurtasuna eta Xabierren golpea aprobetxatuz. Azken hauek nagusitu ziren. Iñurrategik ez zuen atzeko kuadroetan izan behar lukeen nagusitasuna erakutsi. Arrazoiak bilatzerakotan Jaiok eskainitako jokora begiratu behar. Bizkaitarrak ez du izugarritzako kolpea, baina oso pelotaria da. Oso argia da eta aurkariaren hutsuneak oso ongi aprobetxatzen ditu. Bera izan zen finaleko

onena. Aurreko kuadroetan berriz, anaien arteko lehian, denetik izan zen. Aitorrek partidako tanturik politenak lortu zituen, baina era berean izugarritzako hutsak ere egin zituen. Xabier bestalde erregularrago aritu zen eta segurtasun horrek eraman zuen txapela lortzera. Azkenean, huts askoko partida batetan, Jaio eta Ubera II.aren-tzako txapela 22 eta 16 irabazi ostean.



Xabier eta Aitor bere garaikurrak eskuan dituztela.

Mikel eta Enrike Ermuako XVI. Santiago pala Txapelketako irabazleak

Bi anaiek inguruko herrietako txapelketa gehientsuenetan parte hartzen dute



Mikel eta Enrike hamaika sari irabaziak dira pala txapelketetan.

Uztailaren 21ean jokatu zuten Mikel eta Enrikek Ermuako binakako XVI. Santiago pala txapelketako finala. Partidua Ermuako plazako frontoi irekian jokatu zen, jai ospakizunen atarian. Elgetar bikoteak aurkari Mallabiko bikote bat izan zuten. Partidak ez zuen kolorerik izan eta segituan hartu zuten aurrea markagailuan. Enrike Mallabikoatzelaria baino gehiago zen atzean eta Mikel tantua aurrean amaitzen saiatzen zen pilota ahalik eta gutxien galduz. Azkenean, eta ordubete eskaseko partidua ostean markagailuak 35-15 erakusten zuen (ligaskako partidatan 17an utzi zituzten Mallabiarrak). Bi anaiek, Txapeldunei zegozkien kopa eta txapelak jaso zituzten. Gainera Mikelek sari gehigarri bat jaso zuen; finaleko jokalaria onenari zegokiona hain zuzen ere.

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel. 768078

Aldrebesak bikain Bergarako futbol txapelketan

Finalean 3 eta 1 galdu arren bikain herriko neska gazteak

Aspalditxotik dabilta herriko neska gazteak isilean lanean eta horren fruituak jasotzen hasi dira orain. Ipintzako "futbol 7" txapelketako finalera heltzea lortu dute eta hori ez da merito makala. Luissek gidatutako neska talde honek txapelketa nahiko makal hasi arren gora egin du hau aurrera joan ahala. Horren adibide finalerdietan lortutako garaipena, lehenengo fasean 10 eta 0 irabazi zion taldearen aurka. Izugarria. Finalean ezin izan zuten balentria errepikatu Baleikereren aurka 3 eta 1 galduz. Hasiera-hasieratik hiru goleko abantaila lortu zuen Bergarako taldeak eta bigarren



Bikain aritu dira Elgetako neska gazteak.

zatian elgetarrak gehiago izan baziren ere ezin izan zioten partidari buelta eman.

Era berean ez

ditugu ahaztu behar nagusietan aritu diren Joixon Bertanekoak. Hauek ez dira kadeteen mailara iritsi baina parti-

da onak jokatu dituzte.

Mutiletan ere maila bikaina erakutsi dute herriko gazteek. Iaz ez zuten garaipenik lortu eta aurten berriz, finalaurdenetara iritsi dira txapelketako talde zailean aurrera egin ostean. Finalaurdenetan 1 eta 0 galdu zuten Gore taldearen aurka. Bigarren minutuan taldeko jokalaririk onenetakoa eta ordurarte txapelketako erregularrenak, Igorrek, txartel gorria ikusi zuen izugarriko huts baten ondorioz eta ezin izan zuten partida osoan falta hori gainditzetik izan. Dena den, txapelketa ona burutu dute.

Gaztetxeak antolatutako II. atzeko koadroetako txapelketa

Gorka Bolinaga eta Angel Ibarluzea izan ziren irabazleak

Duela bi urte bezala, eta urtebeteko geldiuonearen ostean, gaztetxeak atzeko koadroetako II. pilota txapelketa antolatu zuen uztailearen 24ean. Guztira zortzi bikotek eman zuten izena. Gorka Bolinaga eta Angel Ibarluzeak, Mikel Mandaluniz eta David Peñalver izan zituzten are-

rio finalean. Partidu hau izan zen txapelketako onena. Azken emaitza 22-18. Aurrez, bikote txapeldunak Jon Irazabal eta Mikel Ormaetxea utzi zituzten kanpoan 22-18ko emaitzarekin. Mikelek eta Daviddek berriz Fernando Zenitagoia eta Asier Mo-ralesi irabazi zieten 22-17.

Irabazleek eta azpitxapeldunek IRAMAK jarritako trofeoak jaso zituzten. IRAMAz gain, esan, Elgetako pilotarien laguntza ere jaso dutela antolatzailerik pilotak aurkitzerako orduan, frontoia garbitu, etab.

Antolatzailerik esan digutenez datorren

txapelketetarako 18 urtetik gorako federatuen partehartzea debekatuko dute. Aurten, joka zezaketen, baina pilota ezkerreko eskuaz jo zezaketen soilik. Atzeko koadroetan, federatu eta afizioz jokatzeko pilotazaleen arteko aldea ez da handia, baina kol-pe seguroago bat dute.

Elgeta autoak

EUROTALLER

Zure autoaren mantenua
konponketak

oporretara joan aurreko azken begiratua

Ez izan dudarik, bisita gaitzazu eta gure prezioekin txundituta geratuko zara. Berraondokuan gaude, Elgetan bertan.

Tel.: 943 76.82.02 eta 943 76.82.98

Etxeko lanak zeinek? Aitak, amak, denok...

Kaixo Goibekokaleko irakurleoi, gu DBH-ko 1. mailako ikasleak gara eta gaurko honetan etxeko lanak nork egiten dituen azaltzen saiatuko gara. Erantzuna bilatu nahian, beraz, aurrerantzean irakurriko duzuen.

Gure ustez, etxe gehienetan, emakumezkoek egiten dituzte etxeko lanak, baina horrek ez du esan nahí, etxe guztietan gertatzen denik, zorionez! Guk pentsatzen dugu etxeko lanak ez direla emakumeentzat bakarrik, beste lanak ez



diren bezala. Lan guztiak, denak egin ditzazkegu guztiok. Emakumezkoak lan batzuk eta gizonezkoak beste batzuk egitea ez da bidezkoa. Banatu egin behar dira lanak, dena emakumearen gain utzi gabe.

Horixe da pasatzen dena etxeko lanekin: jende askoren ustez, etxeko lanak egitea emakumezkoen lana da eta guk hori alda dadin nahi dugu. Emakumezkoek bezain ondo egin dezakete etxeko lanak gizonezkoek. Guk ez dugu esan nahí lan dena gizonezkoek egin behar dutenik, ez horixe! Dena denen artean egitea dela onena uste dugu.

Etxe askotan ohitura hau betetzen da, baina zoritxarrez beste askotan ez. Etxea denona denez denen artean eraman behar da aurrera. Lana denen

arteon egiteko, modu asko daude; lehenengo eta behin, lanak banatzea; bigarren, egun batean batek eta beste batean beste batek egitea; etab. Etxe bakoitzeko jendeak jakingo du nola egin behar den, baina egin behar da.

Banaketa posible bat da aurrerago proposatu dizueguna:

Emakumezkoak: janaria prestatu, arropak garbitu, pantxa egin eta haurrak zaintu ditzake.


Gizonezkoak: erosketak egin, etxea garbitu.. egin ditzakete.

Guk ez dugu esaten alderantziz ere ezin denik egin, Zergatik ez???


Hala ere, onena, etxe bakoitzak lanak bere erara banatzea izango da. Baina, ez egon begira, denok denona eginda hobeto da eta.

DBHko 1. mailakoak

HAIZEA
TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN


Bi kamiseta irabazi dittu Mikel Gorosabelek. Ez dakigu pelotarixa dan edo asmau bihar zana eza-gutzen daben, bata edo bestia izan, berantzako izango dira kamisetak. Bere erantzuna zuzena izan da eta gaiñera hillabetero egitten dogun zozketan bera izan da eta irabazlia.

Ez zan oso zailla itxuria danez. Karta mor-doska bat jaso doguz eta horren artian bakarra izan bihar irabazlia. Juan Luis Ubera zala esan bihar ziñuen eta hala egin dozue zuen erantzune-tan. Erantzun oker bat be ez dogu jaso. Sarri ikusi-ko ziñuen Juan Luis pelota txapelketako arduradu-nak egin bihar dittuanak egitten eta horrek be lagunduko zeban.

Gura giñuke danei emotia kamisetak, baiña oin lortu ez dabenak hurrengo baten lortuko dau, egon seguru. Zuek jarraitu idazten! Oso erreza da oinguan be. Zetan dihardue erretra-tuan darenek???

Pista moduan esango dogu irailian berriro ikusteko aukeria euko dogula. Animo ba eta ia hurrengo kamisetak zuentzako diran.

Lektoretan





Ohittura zahar batzuk oinndiok bizik daukaguz gure artian. Batzuk, begibistakuak izaten dira egun berezixetan egitten diazelako; beste batzuk, berriz, eguneroko bizimoduan errotuta dagoz, eta ez gara konturatzen zegaittik egiten doguzen, hola dira eta kitto.

Kontua da, aurreko batian, Euskal Herriko historixian gaiñeko liburu bat irakurtzen niharduala, eta halako batian, nun irakurtzen doten lehenago etxiak inportantzia haundixa zekala jendia ezagutzerakuan, apelliduak baiño gehixau: familixia etxiagaittik edo ofiziuagaittik ezagutzen zan eta ez apelliduagaittik. Hori holan gertatzen zan eta da herri txiki eta basarri aldetan.

Jaiotakuan ipiñi-

Etxeko

txako izenak umetan-eta balio izaten dau, gero, kalian laster aldatuko dotsue eta barrixa jarri. Kasu onenian basarrikua edo guraso baten basarrikua jarriko dotsue; txarrenian, berriz, auskalo.

Hori oihitturioi aspaldittik dator, eta gaur egun be bizi-bizirik dago gure artian. Oinndiokan, askotan ez dogu jakiten pertsona baten apellidua. Ohittuta beti izena eta basarriko izena esaten, edo basarriko izena bakarrik, gero, nunbait izena eta apelliduak ikusten doguzenian, kosta egitten jaku nor dan jakitzia. Ez dot ejenplurik emongo, baiña, pentsau pixka bat (asko eskatzia ez bada), eta hurrian barra-barra ikusiko dozuez adibidiak (zeuen izena zein da?) erabiltzen dogula. Hiru modutara behintzat erabiltzen dogu: etxian izena bakarrik; izena + etxia; edo etxia (ko) + izena.

Kanpuan edo inguruko herrixetan esa-

ten bozu nungua zazen (eta askotan hori da zuzenian galdetzen dabena) errezaue ezagutuko zaittue zure edo gurasuen basarrixan izena esaten bozu. Gero, hortik haritik tiraka etarako dabe zeinñen seme-alabia zazen. Guk gaztiok ez doguz ezagutzen inguruko basarrixak, juxtu-juxtu herrikuak, baiña gure aurre-raukuek herriko eta inguruko herrixetako basarri asko ezagutzen dabez.

Iparraldian be denbora asko ez dala protestaka ibilli dira (euskaldunok beti protestaka) telefono listinñetan ez zotzelako lagatzen etxien izenak ipintzen. Kontua da han be Manex Etcheverry jartzen badau listinñean eta gero Bordaberri, bertakuak hobeto ezagutzen dabiela edo aurkitzen dabela Manex Etcheverry, rue du N. Bonaparte 6ème jartzen badau baiño. Beste modu batera esanda, badakixela Bordaberriko Manex dala

hori.

Nik dakidala, hori fenomenuoi hemen bakarrik gertatzen da. Gatzagatik behera, eta nik dakidanez, normalian pertsona baten barri emoteko 'la hija de la Marcelina' edo 'el hijo del Feliciano' esango dotsue, edo antzerako bat. Pentsatzekua da horrek be ofiziuagaittik deittuko dotzela jentiai, baiña etxian izena-gaittik ez behintzat.

Askotan, basarrixa edo etxia galdu bada be, oinndiokan pertsona batzuk basarrixan izena-gaittik ezagutzen doguz. Baiña, egunen baten galduko da ohitturia, izan be, gero eta basarri gutxiu dago, eta kaletarrok geruau eta gutxiu eza-gutzen doguz; jende gehixena kalian bizi da, jende barrixa dator herrira, bertakoak kanpora doiaz,...

Enrike Gorrotxategi

Lehenago etxiak inportantzia haundixa zekan jendia ezagutzerakuan, apelliduak baiño gehixau: familixia etxiagaittik edo ofiziuagaittik ezagutzen zan eta ez apelliduagaittik

**Iragarri
zaitez.**


Tel:78.90.85
Faxa: 789043



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.



tel: 768273



M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



Erretratu: Julita Atorrasagasti.

Hau da hau neska kuadrillia!

Oin dala 55 bat urte etaratako erretratu da. Konturatuko ziñien moduan, erretratuko danak neskak dira, orduan ez zeguan neska-mutilen eskolaik eta. Andereiñuan izena be esan doskue, “madre Benigna”. Eskerrak gaur maistren eta ikaslien arteko hartu-emona hobia dala.

Goittik behera emongo dittugu izen guztiak. Izan be, pillla bat dira eta. Gutxi gora-behera hilaraka dare izenak emonda.

Benedita Arantzeta, Primitiva, Mari Cruz, Mari Tere Arantzabal, Gloria Aixolakua, Juanita Torrekoa, Isabel Elkorro, Faustina Gallastegi eta Alizia.

Pepita, Mertxe Elortza, Karmenzita, Don Felix maisuan alabia, Amaia Telleria eta Mari Glori.


Karmen Loidi, Begoña Sakonekoa, Miren Azurtzakua, Vitori Osoro, Miren Kastillokoa eta Vitori Itturrikua.

Margari Artekalekoa, Angeles Olabarria, Eugeni Albisteikua, Juanita Arantzabal, Maria Luisa Sagastixukua, Domiana Oleikua, Zerafi Zabaletakua eta Julita Atorrasagasti.

Mari Tere Agarrekua, Arantxa Berrixonekoa eta Mertxe Mendikute.

Maritxu Elkorro, Maia Luisa Prieto, Irene Gorrotxategi, Mertxe Erostarbe eta Mertxe Galarrakua.

**Patatak ebagi,
arrautzei ereiñ,
zartaiñai buelta emon.**



**IRAILLAK 18XAN
SAGARDO EGUNA**

Denda berria



Gotzon Agirrezabal

Tel/Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:

10:00-13:00

eta 16:00-20:00.

T
textil
agirrezabal
A

**Alfonbren
almazen berria**

- Bertako eta inportazioko alfonbra eskusiboak
- "Generazio berriko" kolekzioa

Denda Berria

- Telak metroka eta pisura
- Etxerako behar duzun guztia: gortinak (guk geuk egindakoak), izarak, tapizak...

Den-dena almazeneko prezioetan



Amillaga Industrialdea, 5 · BERGARA · Renault-en ondoan